

Gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua aurrera ateratzeko honako kostu hauek izango ditugu. Kostuak ahalik eta gehien murrizten saiatuko gara, beraz gure kasuan honako kostuak edukiko genituzke:

- Kostu finkoak: hasieran lokalean inbertitu beharko duguna aurreikusita daukagu, baita webgunea eta sare sozialak mantentzeko beharrezkoa den guztia.

Horrez gain, etorkizun batean monitore ezberdinak kontratatzea aurreikusten dugu. Hasiera batean, gu izango ginateke ekintza horiek aurrera ateratzen dituzten begiraleak. Hala ere, aniztasun funtzionala daukaten haurrekin esperientzia izan duten begirale bat edo bi beharko genituzke aurrerantzean gure bezero kopurua handitzen doan heinean. Begiraleetan hasieran gasturik ez edukitzeko eta dirua aurrezteko horretan esperientzia duten lagun edo ezagunen laguntza beharko genuke. Ondoren, negozioa hazi ahala gehiago inbertituko genuke begirale eta ekintza desberdinetan, beste hainbat herritan ekintzak proposatzeko.

- Kostu aldagarriak: ekintzak egiteko leku desberdinetara joateko autobusa alokatzea, eta beharrezko materialak erosi eta behar denean berrizteko. Esaterako, irteeretan autobusa beharrezkoa denean, autobusak kostu bat edukiko du, baina irteera guztietarako ez da autobusa alokatzea ezinbestekoa izango, horregatik kostua aldatuko litzateke.

Hona hemen kostuen taulak:

Finkoak:

Beharrezkoa	Unitatea	Prezioa	Amaierako prezioa
Lokala	1	400€/hilean	400€
Mahaiak (bigarren eskukoak)	3	140€ bi mahai 20€ mahai bat	160€
Aulkiak (Ikea)	25	10€ aulki bat	250€
Ordenagailua	1	199€	199€
Inprimagailua	1	49€	49€
Bozgorailua	1	79€	79€

Irratirako iragarkia	1	150€	150€
Anboto iragarkia	1	110€	110€

Aldakorrak

Beharrezkoa	Unitatea	Prezioa	Amaierako prezioa
Materiala	4	75,64 €	302,56€
Autobusa (60 plaza)	1	180€ (3€ pertsona bakoitzak)	180€

Kostu orokorra:	1879,56€
------------------------	----------